

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2022-04-05(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

**5.- ARANE GIBELORTZAGA AUZOAN, 3 POLIGONOKO 420 PARTZELAN, HARAGI-BEHIENTZAKO USTIATEGIA JARDUERA IPINTZEKO ESKARIA ONARTZEA.**

**Xedea**

Arane Gibelortzaga auzoan, 3 poligonoko 420 partzelan, haragi-behientzako ustiategia jarduera jarduera ipintzeko eskaria.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2021eko abenduaren 3an, \*\*\*4546\*\* NAN zenbakidunak, Arane Gibelortzaga auzoan, 3 poligonoko 420 partzelan, haragi-behientzako ustiategia jarduera martxan jartzeko lizentzia eskatu eban udalean.

Bigarrena: 2022ko otsailaren 6an Osasun Sailaren jarduera sailkatuen aldeko osasun-txostena jaso da.

Hirugarrena: 2022ko otsailaren 8an Urdaibaiko Patronatuaren aldeko txostena jaso zan.

Laugarrena: 2022ko otsailaren 17an eskaera jendaurrean jarri da, bai BAO ean argitaratutako iragarki bidez, bai udalaren egoitza elektronikoan argitaratutako iragarki bidez. Jendaurreko informazio-epean ez da alegaziorik jaso.

Bosgarrena: 2022ko martxoaren 18an udaleko Ingurumen teknikariak txostena egin eban.

Seigarrena: 2022ko martxoaren 22an Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren aldeko txostena jaso zan. Txosten horretan, jarduera sailkatua kalifikatzen dau eta jarduerak bete beharreko neurri zuzentzaileak ezartzen dauz.

Zazpigarrena: 2022ko martxoaren 29an Urigintza Saileko teknikariak txostena eta erabagi proposamena egin ebazan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E6000964E200U7C5Y7L6Q3C2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 06/04/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 06/04/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/04/2022  
10:39:54

EXPEDIENTE ::  
2021JAR\_SAI\_0002  
Data: 03/12/2021  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E6000964E200U7C5Y7L6Q3C2



## Argudioak

Lehenengoa: Jarduera hau, jarduera sailkatuaren udal-lizentziaren erregimenaren mende dago, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legeak bere 49.1 artikuluan arabera.

Osasun Sailaren, Ingurumen teknikariaren eta Foru Aldundiaren txostenetan azaltzen dan lez, \*\*\*4546\*\* NAN zenbakidunaren eskaria bat dator be araudiarekin.

Bestalde, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 49 eta hurrengo artikuluekin bat, jarduera sailkatuaren lizentzia espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Jarduera sailkatuaren lizentzia emateko eskumena alkateak izango du 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, TAO Leko 21.1.q) artikuluekin bat etorritz, baina eskumen hori 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Bigarrena: Behin jarduera sailkatuaren lizentzia emonda, **jarduera hasteko**, titularrak jakinarazpen bat aurkeztu beharko du udalaren aurrean, eta agiri horretan bere erantzukizunpean adieraziko du instalazioa onartutako proiektuarekin bat datorrela eta, hala badagokio, jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako neurri zuzentzaile osagarriekin. Gainera, ezarritako baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoa adieraziko du.

Jakinarazpen hori egingo da instalazioak martxan jartzeko gaituta daudenean, eta, hala badagokio, hirigintzako nahitaezko lizentziak, jakinarazpenak edo inskripzioak eduki beharko ditu dagozkion erregistro sektorialetan.

Jakinarazpenarekin batera langile teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiri bat aurkeztuko da, lizentziaren helburu den jarduera motaren arabera, eta egiaztatuko du instalazioak onartutako proiektuarekin bat datozela eta jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako baldintzak bete direla.

Aurreko jakinarazpena aurkezteak gaitu egiten du une horretatik aurrera jarduera eraginkortasunez egiteko. Nolanahi ere, administrazio publikoek beren eskumenen arloetan egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-gaitasunak baliatu ahal izango dituzte

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: \*\*\*4546\*\* NAN zenbakidunari eskatutako jarduera sailkatuaren



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E6000964E200U7C5Y7L6Q3C2

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 06/04/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 06/04/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/04/2022  
10:39:54

EXPEDIENTE ::  
2021JAR\_SAI\_0002  
Data: 03/12/2021  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E6000964E200U7C5Y7L6Q3C2



lizentzia ematea, Arane Gibelortzaga auzoan, 3 poligonoko 420 partzelan, haragi-behientzako ustiatzea jarduera jartzeko.

**BIGARRENA:** Jarduera sailkatua hasteko edo irekitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak bere txostenean ezarritako NEURRI ZUZENTZAILEAK bete beharko dira.

**HIRUGARRENA:** Interesdunari ohartaraztea neurri zuzentzaileak hartu ostean, jarduera hasteko, jakinarazpen bat aurkeztu beharko duela udalaren aurrean, eta agiri horretan bere erantzukizunpean adieraziko du instalazioa onartutako proiektuarekin bat datorrela eta, hala badagokio, jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako neurri zuzentzaile osagarriekin. Gainera, ezarritako baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoa adieraziko du. Aurreko jakinarazpena aurkezteak gaitu egiten du une horretatik aurrera jarduera eraginkortasunez egiteko.

**LAUGARRENA:** Jarduera hasteko jakinarazpena egiten danean, lizentzia jarduera klasifikatuen erregistroan jasoko da.

**BOSGARRENA:** Ebazpen hau udalaren egoitza elektronikoa argitaratzea eta interesdunari, Osasun Sailari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen-organoari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsioak adieraziz.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretiaz.

*Orrri-oinean sinatzailea eta data*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E6000964E200U7C5Y7L6Q3C2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 06/04/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 06/04/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/04/2022  
10:39:54

EXPEDIENTE ::  
2021JAR\_SAI\_0002  
Data: 03/12/2021  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E6000964E200U7C5Y7L6Q3C2

